



**Arartekoaren 2013ko irailaren 25eko ebazpena. Horren bidez, Osasun Sailari gomendatzen zaio paziente bati sendagai baten finantzazioari begira emandako ukoa berrikusteko; izan ere, gaixo honen benetako beharrian eta premia bestelako patologia batean kontuan hartu den berbera da eta azken hori finantzatu egiten da.**

### Aurrekariak

1. Sindrome lehor eta larri bat (Lyll sindromearen bigarren mailakoa) daukan paziente batek beharrezko eskaera egin zuen, betiere VISCOFRESH medikamentua eman zekion. Finantzazio publikotik baztertutako medikamentu bat da, honako kasu honetan izan ezik: Sjögren sindromeak ukitutako pazienteen begietako lehortasuna arintzeko izan ezik, hain zuzen ere (2012ko abuztuaren 2ko Ebazpena, Osasun Sistema Nazionalaren Zerbitzuen Oinarrizko Multzoaren Zuzendaritza Nagusiarena).

Eskatzaileak azken sindrome hori ez duenez gero, Osasun Administrazioak uko egin zion eskaerari; era berean, uko hori baieztatu eta berretsia izan zen alde zuzenetatik erreklamazioaren ezezpenean.

2. Kexarekin batera aurkeztutako txosten mendikoak aintzakotzat harturik, paziente horrek, Sjögren sindromea ez izanagatik ere, sintoma bera du (eta larriago azaltzen zaio). Sintoma hori da medikamentua finantzatzeko justifikazioa ematen duena.

Premiaren muina baloratzeko eta patologia desberdinetan jatorria duen sintoma bera den ala ez zehaztu ahal izateko, beharrezko argibideak eskatu genizkion Osasun Sailari.

Medikamentu honen finantzazioa premiaren arabera eta ez patologiaren arabera osatzeko kasu baten aurrean egon gitezkeela kontuan harturik, Osasun Sailari honako informazioa eskatu genion: pertsona honentzako medikamentuaren finantzazioa bere gain hartzeko aukerari buruzko informazioa, hain zuzen ere.

3. Erantzunean, Osasun Sailak, arauak Sjögren sindromea dutenei begira ezarritako salbuespena baino ez dela pentsaturik, honako hauxe adierazi zuen:

*“En la documentación aportada, concretamente en el primer informe médico de fecha 23 de abril de 2013 si bien se cita síndrome seco Sjögren-like secundario a síndrome de Lyell, en el segundo informe de fecha posterior del 29 de mayo de 2013 se considera que la paciente presenta un síndrome seco de carácter grave, al menos tan grave como las pacientes con síndrome de Sjögren severo y más grave que las pacientes con síndrome Sjögren leve.*





*De este último informe se deduce que la paciente no padece síndrome Sjögren, sino síndrome de Lyell, cuyo tratamiento no está incluido en la financiación pública”.*

Horretan oinarri harturik, sailaren ustetan, ez da bidezkoa medikamentua ordaintzea.

Paziente horren banakako laguntzaren premiari, beraz, irizpide hori aplikatu zaio, betiere patologia mota huts-hutsean kontuan hartuz, baina sendagaia finantzatzen den patologia (Sjögren sindromea) dutenen premia berbera duen ala ez aztertu gabe. Hori guztiori dela eta, ondorengo gogoetak egin behar ditugu:

### Gogoetak

1. Paziente honek agerian jarritako kasuak aditzera eman eta egiaztatzen du kasu larri baten aurrean gaudela; kasu hau ez da sartzen arauak VISCOFRESH medikamenturako ezarritako salbuespenaren edukiaren barruan. *Sjögren* sindromea ez izanagatik ere, egoera honen ondorioz aztertu behar izango litzateke ea pazientearen benetako beharrizan eta premia lotzen zaion arauak sindrome horretarako ezarritako salbuespena justifikatzeko arrazoi berari.

Gure informazio eskaerak premia hori planteatu zuen; horrela bada, adierazi genuen kexa hau izapidetzea onartu genuenean egin genuela medikamentuaren finantzazioa premiaren arabera eta ez patologiaren arabera osatzeko kasu batean geundela pentsatuz.

2. Txosten medikoak ikusita, esan daiteke paziente honek ondorio larriak izango dituela, baldin eta eskatutako tratamendua ematen ez bazaio. Txosten horietan osasun administrazioari eskatzen zitzaion aurrekariak kontuan hartzeko eta, hartara, finantzazioa ontzat emateko, betiere medikamentuaren aplikazioak faltak ekar ditzakeen okerragotze larriak saiheste aldera (keratitisa, begietako ultzera, begietako infekzioa eta abar).

Osasun Sailak txostenak irakurtzean aztertu du ea pazienteak Sjögren sindromea duen ala ez, baina ez dugu ikusi ea pertsona honen premiak bat datozen sindrome hori duten pazienteei begira VISCOFRESH medikamentuaren salbuespena justifikatzen duten premiekin eta ea premia horiek berberak diren ala ez.

Gurutzetako Ospitalearen maiatzako 29ko txosten medikoak (Osasun Sailak gure eskariari emandako erantzunean jakinarazia eta aipatua) medikamentu hori emateko aukera jasotzen zuen, ospitaleko farmaziaren bitartez edo erabilera konpasiboaz baliaturik. Bide hori albo batera utzi zen osasun



administrazioak adierazi zuenean hori ez zela bidezkoa, bazterturik zegoelako.

Txosten horrek VISCOFRESH sendagaiarekiko tratamenduaren premia honakoan oinarritzen du: pazienteak Lyell gaixotasunaren bigarren mailako sindrome lehor larria dauka eta haren sintomatologia da ez-gaitasuna dakarren begi lehortasuna; horrek keratitis eta begietako ultzera ugari eragin dizkio. Txostenak honako hauxe ondorioztatzen du: *Se considera que la paciente presenta un síndrome seco de carácter grave, al menos tan grave como los pacientes con síndrome Sjögren severo y mucho más grave que los pacientes con Síndrome Sjögren leve...*

Osasun Sailak ukoa sindrome hori ez baizik eta beste bat izateko argudioan oinarritu du; hori halaxe egin du, nahiz eta txostenean beren-beregi aipatu tratamenduan Sjögren sindromeak eragindako sintoma berbera duela; hala eta guztiz ere, pazienteari ez zaio inolako alternatibarik eskaini.

3. Aurrekoa gorabehera, ez dakigu ea Sjögren sindromedun pertsonengan begi lehorreko sintoma larria tratatzeko medikamentua finantzatzeko justifikazioak kontuan hartzen duen paziente honen kasuan ematen ez den bestelako alderdi medikoren bat; izan ere, transkribatutako txostena berriro ere gogora ekarriz, pazienteak honakoa dauka: *síndrome seco de carácter grave, al menos tan grave como los pacientes con síndrome Sjögren severo y mucho más grave que los pacientes con Síndrome Sjögren leve.*

Bien arteko elementu bereizgarriak ez badago, iruditzen zaigu oinarritutako eskaera hau ukatzeko erabakiak ez duela aintzakotzat hartzen sistema publikoaren txosten medikoetan adierazitakoa eta, beraz, ez dagoela justifikaturik.

Gauzak horrela, premia berbera izanik ere, finantzaturik dagoen medikamentu bat eskuratzeko tratua desberdintasuna bakar-bakarrik oinarritzen da patologiarekin arabera. Kasu honen aurrekariak aztertu eta gero, ez zaigu iruditzen bestelako tratua emateko justifikazio nahikorik dagoenik.

Horren ondorioz, bestelako tratua justifikatzeko datu berririk ez badago, uste dugu xxxxx andrearen eskaerari uko egiteak berekin dakarrela pertsona horrek banakako beharizan eta premietara egokitutako osasun artapena jasotzeko duen eskubidea ez ezagutzea.

Hori guztiori dela eta, erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikulua manatutakoarekin bat etorritik, honako gomendio hau egiten da:



### Gomendioa

Osasun Sailari gomendatzen zaio, espedientean azaltzen den Gurutzetako Ospitalearen 2013ko maiatzaren 29ko txosten medikoak egiaztatzen duen tratamendurako premiari men eginez, VISCOFRESH medikamentua finantzatzeko emandako ukoa berrikus dezala, betiere paziente honentzako medikamentuaren ohartarazpena benetako premiaren arabera egokitzeko asmoz.